Ciudades Amigas de la Infancia

unicef

# Convenio de Colaboración en el marco del Reconocimiento Ciudad Amiga de la Infancia entre Ayuntamiento de ERMUA y UNICEF Comité Español

D. Isidro Elezgarai Esteban, presidente del Comité País Vasco, en nombre de UNICEF Comité Español; y D. Juan Carlos Abascal Candás en calidad de Alcalde del Ayuntamiento de Ermua.

En virtud de la documentación aportada por el Ayuntamiento de Ermua y en cumplimiento de los requisitos previstos en la convocatoria de Reconocimiento de Ciudades Amigas de la Infancia del año 2019-2020 UNICEF Comité Español ha decidido otorgar el Reconocimiento a Ermua como Ciudad Amiga de la Infancia, para el periodo 2021-2025, el cual es aceptado y asumido por D. Juan Carlos Abascal Candás.

El presente convenio ratifica el reconocimiento otorgado al Ayuntamiento de Ermua como Ciudad Amiga de la Infancia y entra en vigor el día de su firma. Estará vigente hasta el 31 de diciembre de 2025, sin perjuicio de la facultad de cualquiera de las partes de promover su finalización de forma unilateral en cualquier momento, informando previamente a la otra de los motivos de dicha decisión.

Que es voluntad de ambas partes recoger por escrito los compromisos adquiridos para lo cual,

## MANIFIESTAN

**Primero.** – Que el Ayuntamiento de Ermua podrá hacer uso público del Reconocimiento Ciudad Amiga de la Infancia a los efectos de informar, sensibilizar y dinamizar a la ciudadanía, promover la participación infantil, actuar a favor de la infancia conforme a sus competencias, de acuerdo con el marco fijado por la *Convención sobre los Derechos del Niño*, y con ello dar a conocer a la ciudadanía las actividades y logros alcanzados en la implementación de su Plan local de infancia y adolescencia.

A estos efectos el Ayuntamiento de Ermua seguirá las directrices de uso de marca y logo dadas por UNICEF Comité Español recogidas en el punto séptimo de este Convenio.

**Segundo.** - Que, a los dos años de la firma del presente convenio, el Ayuntamiento de Ermua se compromete a elaborar y presentar un informe intermedio, basado en datos, sobre los avances conseguidos con respecto a los logros y metas fijados en su Plan local de infancia y adolescencia.

Para la elaboración de este informe el gobierno local tendrá en cuenta las observaciones realizadas por UNICEF Comité Español como resultado del proceso de valoración de su candidatura a la convocatoria de reconocimientos 2019-2020. El informe intermedio deberá entregarse antes del 1 de diciembre de 2023, en el formato ofrecido y a través del canal determinado por UNICEF Comité Español.

**Tercero.** - Que se compromete, entre otras a:

- Colaborar en las campañas de sensibilización y con los llamamientos de apoyo a las situaciones de emergencias que realice UNICEF Comité Español.
- Realizar acciones encaminadas a informar y sensibilizar a la ciudadanía de su localidad, y dentro de ella especialmente a la infancia, sobre la *Convención sobre los Derechos del Niño*. Para ello realizará acciones divulgativas, formativas, campañas, y entre otros incentivará la celebración del Día Universal de la Infancia (20 de noviembre) y dará visibilidad a esta fecha en su agenda local.
- Promover dentro de su personal el conocimiento y formación en derechos de infancia.

- Promover dentro de los centros educativos de su ámbito geográfico el programa de educación en derechos y ciudadanía global de UNICEF Comité Español (https://www.unicef.es/educa/centros-educativos). Este programa pone a disposición de la comunidad educativa, de forma gratuita, materiales, recursos, servicios y propuestas educativas sobre derechos de infancia.
- Promover una participación infantil activa y significativa en la que niños, niñas y adolescentes, de forma directa, cuenten con espacios propios para la generación de propuestas sobre los temas que les afectan, que estas que serán tenidas en cuenta por parte de los responsables del gobierno local y que se contará con mecanismos y espacios para informar a los niños, niñas y adolescentes sobre el estado de sus propuestas.
- Tener en cuenta en el diseño e implementación de las acciones que realice dirigidas a la infancia, un enfoque de no discriminación.
- Realizar todos los esfuerzos posibles para promover los programas de acción para y con la infancia y las familias, prestando especial atención a los colectivos más vulnerables y en situación de riesgo de exclusión social, es decir implementará sus acciones con un enfoque de equidad. De esta manera estará contribuyendo a la consecución de un Pacto de Estado por la Infancia.
- Informar con la mayor rapidez y diligencia ante situaciones que involucren al Ayuntamiento de Ermua, a sus colaboradores y/o personal laboral y que puedan ser contrarias a los valores de UNICEF Comité Español y/o implicar un riesgo para el buen nombre de UNICEF, UNICEF Comité Español y/o la Iniciativa Ciudades Amiga de la Infancia. Ambas partes se comprometen a colaborar en la búsqueda de acciones inmediatas para evitar y abordar la situación de una forma rápida y eficaz.

  En casos extremos, UNICEF Comité Español podrá resolver de forma unilateral este convenio sin necesidad de preaviso.

Cuarto. - UNICEF Comité Español por su parte:

- Hará difusión en sus canales del reconocimiento otorgado. Además, hará entrega a Ayuntamiento de Ermua el diseño (en archivos para impresión, en tamaños estándar) de señales de tráfico ilustrativas del mismo. Estos diseños no pueden ser alterados por parte el Ayuntamiento de Ermua.
- Se compromete a informar al Ayuntamiento de Ermua sobre todas las acciones que se realicen en el marco del Programa Ciudades Amigas de la Infancia.
- A fin de apoyar el punto anterior pone a su disposición recursos, materiales, propuestas de actividades de participación infantil y la posibilidad de asistencia a eventos, entre otros, a través de www.ciudadesamigas.org
- La persona designada como punto focal según lo indicado en la cláusula sexta, será la interlocutora principal designada para responder a consultas y dudas que pueda tener UNICEF sobre la aplicación del enfoque de derechos de infancia en el ámbito local.
- Podrá realizar visitas de seguimiento durante todo el período del reconocimiento cuando lo considere necesario o a través de una solicitud del propio Ayuntamiento de Ermua. Todas las visitas se harán bajo acuerdo y coordinación del Ayuntamiento de Ermua.
- Habilitará la herramienta de gestión de información de la iniciativa para la consulta y cumplimentación de la información para el informe intermedio y renovación del reconocimiento.

Quinto. – Sin perjuicio de lo anterior, las partes podrán acordar la puesta en marcha acciones adicionales como parte de esta colaboración, debiendo quedar recogidas por escrito.

Sexto. - Las partes acuerdan designar un punto focal por cada entidad para la coordinación de este acuerdo. Por parte del Ayuntamiento de Ermua se designa a Sandra Cid Sillero y por parte de UNICEF Comité País Vasco a Marga Morán.

Si alguna de las partes, cambia la persona de punto focal, deberá informar el nuevo contacto, por escrito, tan pronto como sea posible.

Ambas partes se comprometen a mantener cauces de información, diálogo y colaboración eficaces, a los efectos de desarrollar, mejorar de forma continua e innovar en las políticas locales de infancia y adolescencia.

Séptimo. - Comunicación y uso de logos

- UNICEF Comité Español pondrá a disposición del Ayuntamiento de Ermua el logo de la organización y de la iniciativa Ciudades Amigas de la Infancia, el manual de aplicación, así como recursos de comunicación (escritos, gráficos y/o audiovisuales) para la elaboración de los materiales de comunicación relativos al convenio. En todo caso, la marca o el logotipo y distintivos se utilizará exclusivamente en la versión facilitada sin que se puedan alterar colores, formas, símbolos o gráficos. Cualquier alteración sustancial e intencionada, sin previo consentimiento supondrá una infracción de los derechos del titular de la marca.
- Cualquier material de comunicación y promoción como parte de esta colaboración cumplirá con las políticas y estándares de UNICEF Comité Español y estará sujeto a sus respectivos requisitos de aprobación interna.
- El Ayuntamiento de Ermua exclusivamente podrá reproducir el nombre y el logotipo de la organización y de la iniciativa Ciudades Amigas de la Infancia en aquellas actividades que hayan sido acordadas previamente.
- El Ayuntamiento de Ermua no podrá hacer uso público del logo de la Iniciativa Ciudades Amigas de la Infancia salvo autorización expresa y por escrito de UNICEF Comité Español, a excepción de lo establecido en el párrafo anterior.
- El Ayuntamiento de Ermua no podrá transferir a terceros los derechos de utilización del nombre y el logotipo de la organización y de la iniciativa Ciudades Amigas de la Infancia concedido a él exclusivamente.
- UNICEF Comité Español garantiza que todos los derechos de propiedad intelectual sobre toda la información, material, marcas y demás contenidos que entregue al Ayuntamiento de Ermua no infringen derechos de terceros y garantiza el ejercicio pacifico de los derechos cedidos, exonerando al Ayuntamiento de Ermua de cualquier responsabilidad que pudiera derivarse de su ejercicio.
- El incumplimiento de las obligaciones en materia de utilización del nombre y/o el logotipo de la organización y de la iniciativa Ciudades Amigas de la Infancia, legitimarán a UNICEF Comité Español para resolver el convenio de forma automática, y para exigir la correspondiente indemnización por los daños y perjuicios que dicho incumplimiento hubiera podido ocasionar.

Octavo. - Confidencialidad de la información. Durante la vigencia de este Convenio, las partes únicamente compartirán datos estadísticos, investigaciones u otra información relacionada. Las partes podrán utilizar toda la información intercambiada en virtud de este acuerdo, excepto en aquellos casos en que la parte que lo suministra haya establecido restricciones o reservas de uso o difusión. La parte que recibe tal información cumplirá con las condiciones que se le notifiquen.

Salvo lo establecido en el párrafo anterior o acordado de otra manera de forma escrita, ninguno de los documentos o información (en ningún formato) compartida entre las partes, y ninguna información o material desarrollado como resultado de esta colaboración se considerará "confidencial".

Noveno. – UNICEF Comité Español podrá retirar el reconocimiento, de forma unilateral, al Ayuntamiento de Ermua en cualquier momento, si existe evidencia de que, el gobierno local está incumpliendo cualquiera de las obligaciones incluidas en este convenio o no da cumplida respuesta ante la violación de alguno de los derechos de la infancia recogidos en la *Convención sobre los Derechos del Niño*.

Ciudades Amigas de la Infancia

unicef

En tales casos, el Ayuntamiento de Ermua deberá cesar de manera inmediata en el uso de los logos de UNICEF Comité Español y de la iniciativa Ciudad Amiga de la Infancia y suspenderá todas las actividades de promoción de esta colaboración.

Será de aplicación lo dispuesto en las bases del reconocimiento y demás instructivos proporcionados por UNICEF Comité Español en todo lo que no esté modificado o regulado en el presente Convenio.

**Decima. -** Ambas partes se comprometen a resolver de forma amistosa cualquier cuestión que pudiera derivarse de la interpretación del presente convenio antes de recurrir a otras instancias o procedimientos.

Y para que conste a los efectos oportunos, se firma en Ermua, a 22 de julio de 2021

D. Isidro Elezgarai Esteban
Presidente
UNICEF Comité País Vasco
En nombre de UNICEF Comité Español

D. Juan Carlos Abascal Candás
Alcalde
Ayuntamiento de Ermua

Ciudades Amigas de la Infancia unicef

**Lankidetza Hitzarmena,**

**Haurren Lagun den Hiria aitorpenari loturikoa,**

**ERMUAko Udalaren eta UNICEF Espainiako Batzordearen artean**

Euskal Herriko Batzordeko presidente Isidro Elezgarai Esteban jaunak; UNICEF Espainiako Batzordearen izenean; eta Ermuako Udaleko Alkate D. Juan Carlos Abascal Candás jaunak.

Ermuako Udalak aurkeztu duen dokumentazioaren ondorioz eta Haurren Lagun diren Hirien Aitorpenerako 2019-2020 urteko deialdian jasotako baldintzak betez UNICEF Espainiako Batzordeak Haurren Lagun den Hiria Aitorpena Ermua udalerriari ematea erabaki du 2021-2025 epealdirako. D. Juan Carlos Abascal Candás jaunak onartu eta bere egin du Aitorpena.

Lankidetza honek Ermuako udalerriari eman zaion Haurren Lagun den Hiria aitorpena berresten du. Aipatu aitorpena sinaduraren egunean sartuko da indarrean. 2025eko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean, alde bakoitzak aitorpenaren amaiera edozein unetan eta bere kabuz sustatzeko duen gaitasunari kalterik egin gabe. Horretarako, erabakiaren zioak jakinarazi beharko dizkio beste aldeari.

Bion nahia da harturiko konpromisoak idatziz jasotzea eta, horretarako,

**ADIERAZTEN DUTE**

**Lehena.** – Ermuako Udalak Haurren Lagun den Hiria Aitorpena publikoki erabil dezake gizartea informatua izan, sentsibilizatu eta dinamizatzeko, haurren parte-hartzea sustatu eta bere eskumenen araberako haurren aldeko esku-hartzeak bultzatzeko, beti ere Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenarekin bat. Honela, Haur eta Nerabeen aldeko Tokiko bere Planaren gauzatzean garatutako jarduerak eta lorturiko xedeak herritarren artean zabal baititzake.

Xede horietarako, Ermuako Udalak marka eta logoa erabiltzeko UNICEF Espainiako Batzordeak eman dizkion irizpideak jarraituko ditu (Hitzarmen honen zazpigarren puntuan jasota daude).

**Bigarrena. -** Hitzarmen hau sinatu eta bi urtera, Ermuako Udalak erdiko txosten bat egin eta aurkeztu beharko du, datutan oinarritua, Haur eta Nerabeen aldeko Tokiko bere Planean jasotako helburu eta xedeen lorpenari dagokionez egondako aurrerapausoak zehaztuz.

Txosten hori egiteko, aitorpenerako 2019-2020ko deialdirako bere hautagaitza baloratzerakoan UNICEF Espainiako Batzordeak egin dizkion oharpenak aintzat hartu beharko ditu tokiko gobernuak. Erdiko txostena 2023ko abenduaren 1a baino lehen aurkeztu beharko da, eskainitako formatuan eta UNICEF Espainiako Batzordeak zehaztu duen kanalaren bitartez.

**Hirugarrena. -** Ondoko konpromisoak hartuko ditu, besteren artean:

- UNICEF Espainiako Batzordeak abiatu dituen sentsibilizazio-kanpainetan eta larrialdi-egoera ezberdinei loturiko deialdietan parte hartzea.
- *Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena* bere biztanleen artean, eta adingabeen artean bereziki sustatzea eta hedatzea xede duten jarduerak gauzatzea. Horretarako, hedatze-,

heziketa-jarduerak eta kanpainak jarriko ditu abian eta, besteak beste, Haurren Egun Unibertsalaren (azaroak 20) ospakizunak bultzatuko ditu eta data horren ikusgarritasuna bere tokiko agendan sustatuko du.

- Haurren eskubideen inguruko ezagutza eta heziketa bere langileen artean sustatzea.
- UNICEF Espainiako Batzordeak garatu duen eskubideen eta hiritartasun globalaren inguruko hezkuntza-programa (https://www.unicef.es/educa/centros-educativos) bere udalerriko eskoletan sustatzea. Programa horrek haurren eskubideen inguruko doako material, bitarteko, zerbitzu eta proposamenak hezkuntza-komunitatearen esku utzi ditu.
- Haurren parte-hartze aktibo eta esanguratsu bat sustatzea, non adingabeei espazio propioak eskainiko zaizkien –zuzenean– beren bizitzan eragiten duten gaien inguruko proposamenak egin ditzaten. Tokiko gobernuko agintariek proposamen horiek aintzat hartuko dituzte eta mekanismo eta espazio bereziak sortuko dituzte adingabeei beren proposamenen egoeraren berri eman ahal izateko.
- Bereizkeriarik gabeko ikuspegia txertatzea adingabeen alde abiatutako ekimenen diseinu eta gauzatzean.
- Bere eginahalak egitea adingabe eta familien aldeko ekintza-programak sustatzeko, arreta berezia eskainiz gizarte-egoera ahulenean dauden eta gizarte-bazterkeria pairatzeko arriskua duten taldeei. Hau da, zuzentasun-ikuspegia txertatuko du bere ekimenetan. Honela, Haurren Aldeko Estatu-mailako Itun baten garapenean lagunduko du.
- Azkar eta arreta osoz eman beharko du UNICEF Espainiako Batzordearen balioen aurkakoak izan daitezkeen eta/edo UNICEF, UNICEF Espainiako Batzorde eta/edo Haurren Lagun diren Hiriak Ekimenaren izen ona arriskuan jar dezaketen Ermuako Udalari, bere laguntzaileei eta/edo langileei egotz dakiekeen egoera guztien berri. Egoera hori saihestu eta zuzenduko duten berehalako ekintzak elkarrekin bilatzeko konpromisoa hartu dute bi aldeek.

Muturreko kasuetan, UNICEF Espainiako Batzordeak hitzarmen hau bere kabuz eta aurretiaz abisatu gabe deuseztatzeko eskubidea izango du.

**Laugarrena. -** UNICEF Espainiako Batzordeak, bere aldetik:

- Emandako aitorpena bere kanaleen bitartez hedatuko du. Halaber, bere trafiko-seinale argigarrien diseinua entregatuko dio Ermuako Udalari (inprimatzeko artxiboetan, tamaina estandarretan). Ermuako Udalak ezingo ditu diseinu horiek aldatu.
- Haurren Lagun diren Hiriak Programaren baitan gauzaturiko ekintza guztien berri emango dio Ermuako Udalari.
- Aurreko puntua osatzeko, haurren parte-hartzea sustatzeko bitarteko, material eta proposamenak jarriko ditu bere esku bai eta, besteren artean, ekitaldietara bertaratzeko aukera ere. Hori guztia, www.ciudadesamigas.org webgunearen bitartez.
- Seigarren klausulak dioenaren arabera foku-puntu izendatutako pertsona solaskide nagusia izango da UNICEFek haurren eskubideen ikuspegia tokiko eremuan aplikatzeari dagokionez izan ditzakeen galderak eta zalantzak argitzeko.
- Jarraipen bisitak egin ahal izango ditu aitorpenaren epealdi guztian zehar, egoki deritzon guztietan edo Ermuako Udalak berak eskatuta. Bisita guztiak Ermuako Udalaren oniritziarekin eta bere koordinaziopean egingo dira.
- Ekimenari buruzko informazioa kudeatzeko erreminta prestatuko du, erdiko txostenerako beharrezkoa den informazioa kontsultatu eta bete eta aitorpena berritu ahal izateko.

**Bosgarrena. –** Aurreko guztiari kalterik egin gabe, bi aldeek ekintza osagarrien abiatzea ados dezakete lankidetza honen barruan. Ekintza osagarri horiek idatziz jaso beharko dira.

**Seigarrena.** - Bi aldeek foku-puntu bana izendatuko dute akordio honen koordinazioa bermatzeko. Udalak Sandra Cid Sillero izendatu du. UNICEF Euskal Herriko Batzordeak, bere aldetik, Marga Morán.

Aldeetako batek bere foku-puntua aldatuko balu, izendapen berriaren berri emango dio beste aldeari, idatziz, ahal bezain pronto.

Informazio-, elkarrizketa- eta lankidetza-bide eraginkorrak mantentzeko konpromisoa hartu dute bi aldeek, adingabeen aldeko tokiko politikak garatu, etengabe hobetu eta berritzeko xedearekin.

**Zazpigarrena. - Komunikazioa eta logoen erabilera**

- UNICEF Espainiako Batzordeak Haurren Lagun diren Hirien ekimenaren eta erakundearen logoa Udalaren esku utziko ditu. Horrez gain, hitzarmenari buruzko komunikazio-materialak egiteko aplikazio-eskuliburua eta komunikazio-bitartekoak (idatzizkoak, grafikoak eta/edo ikus-entzunezkoak) helaraziko dizkio ere. Nolanahi ere, marka, logoa eta bereizgarriak jaso dituen bertsioan erabili beharko ditu. Ezingo ditu koloreak, formak, ikurrak edo grafikoak aldatu. Nahitako aldaketa esanguratsu guztiek, aurretiko baimena izan ezean, markaren titularraren eskubideak urratzea suposatuko dute.
- Lankidetza honen harira egindako komunikazio- eta sustapen-material guztiek UNICEF Espainiako Batzordearen politikak eta estandarrak bete beharko dituzte eta barne-oniritzirako bere baldintzen menpe egongo dira.
- Ermuako Udalak aurretik adosturiko jardueretan baino ez ditu erabiliko erakundearen eta Haurren Lagun diren Hirien ekimenaren izena eta logoa.
- Aurreko idatz-zatian zehaztutakoa kenduta, Udalak ezingo du Haurren Lagun diren Hirien ekimenaren logoa publikoki erabili, UNICEF Espainiako Batzordearen berariazko eta idatzizko baimena izan ezean.
- Udalak ez ditu berari bakarrik esleitu zaizkion Haurren Lagun diren Hiriak ekimenaren eta erakundearen izena eta logoa erabiltzeko eskubideak hirugarrenen esku utziko.
- UNICEF Espainiako Batzordeak berma dezake Ermuako Udalari emango dizkion informazio, material, marka eta eduki guztien inguruko jabetza intelektualeko eskubideek ez dituztela hirugarrenen eskubideak urratzen. Emandako eskubideen gauzatze baketsua berma dezake ere eta Ermuako Udalak eskubide horien gauzatzearen ondoriozko edozein erantzukizunetik libratuko du.
- Erakundearen eta Haurren Lagun diren Hirien ekimenaren izena eta/edo logoa erabiltzeko betebeharrak urratuko balira, UNICEF Espainiako Batzordeak hitzarmen hau automatikoki deuseztatzeko eskubidea izango du. Halaber, urratze horrek sor ditzakeen kalte-ordainak eskatzeko eskubidea izango du ere.

**Zortzigarrena. - Informazioaren konfidentzialtasuna.** Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean bi aldeek estatistika-datuak, ikerkuntzak eta loturiko beste informazio batzuk baino ez dituzte partekatuko. Hitzarmen honi jarraiki partekatutako informazioa erabiltzeko aukera izango dute bi aldeek, informazioa eman duen aldeak baldintzak jarri ezean bere erabilera edo hedatzerako. Informazioa jaso duen aldeak jakinarazi zaizkion baldintza horiek bete beharko ditu.

Aurreko idatz-zatian jasotakoa edo idatziz adostutako beste edozein baldintza kenduta, bi aldeek partekatu dituzten beste dokumentu edo informazio guztiak (beren formatua dena dela) eta

lankidetza honen ondorioz garatutako informazio edo material guztiak ez dira "konfidentzialak" izango.

**Bederatzigarrena. –** UNICEF Espainiako Batzordeak Ermuako Udalari emandako aitorpena edozein unetan eta bere kabuz kentzeko eskubidea izango du. Horretarako, frogatuta geratu beharko da aipatu tokiko gobernuak ez duela hitzarmen honetako edozein baldintza bete edo ez diola erantzun egokia eman *Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean* jasotako eskubideren baten urratzeari.

Horrelako kasuetan, Udalak berehala utzi beharko dio UNICEF Espainiako Batzordearen eta Haurren Lagun diren Hirien ekimenaren logoak erabiltzeari. Horrez gain, lankidetza hau sustatzea xede duten jarduera guztiak bertan behera utzi beharko ditu.

Hitzarmen honek aldatu edo arautu ez duen edozein gairi dagokionez, aitorpenaren oinarrietan xedatutakoa eta UNICEF Espainiako Batzordeak eman dituen arau guztiak aplikatuko dira.

**Hamargarrena. -** Beste instantzia edo prozedura batengana jo aurretik, hitzarmen honen interpretazioari loturiko auzi guztiei onez-onezko konponbide bat emateko konpromisoa hartu dute bi aldeek.

Eta dagozkion ondorioetarako hala jasota gera dadin, sinatu egin dute Ermuan, 2021eko uztailaren 22 an.

Isidro Elezgarai Esteban jauna

Presidentea

UNICEF Euskal Herriko Batzordea

UNICEF Espainiako Batzordearen izenean

Juan Carlos Abascal Candás jauna

Alkatea

Ermuako Udala